



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Sastarrak batzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen Ordenantza fiskalaren aldaketaren behin-betiko onespena.

Sastarrak batzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen Ordenantza fiskala jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren (2025eko urriaren 17an Osoko Bilkuran behin-behienean onetsia), eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betikotzat jo da automatikoki. Horrenbestez, ordenantzaren testu osoa argitaratuko da, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauen 16. artikuluekin bat.

Bermeon, 2025eko abenduaren 3an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly

**SASTARRAK BATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO
TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA****1. artikulua.— Oinarria eta izaera**

Bizkaiko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua eta Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea betez, ordenantza honek tarifetan jasotzen diren zerbitzuak ematearen eta jarduerak egitearen ondoriozko tasak ezartzen ditu.

2. artikulua.— Egitate ezargarría

1. Ordenantza Bermeoko udalerrí osoan aplikatzen da.
2. Honako hauek osatzen dute zerga egitatea:
 - Etxebizitza partikularretako hondakinak biltzea.
 - Merkataritza, lanbide, industria (etxeko hondakinekin hondakin berdintsuekiko), jolas, kirol eta antzeko jardueretan aritzen diren establezimendu edo lokaletako hondakinak biltzea eta, oro har, etxebizitzak ez diren establezimendu edo lokale-tan egindako edozein jardueratakoak.
 - 3. Hondakinak biltzeko zerbitzua orokorra eta bete beharrekoa da; horregatik, zerbitzua estaltzen duen eremuan dauden higiezinaren titularrek eta erabiltzaileek erabiltzen dutela ulertuko da, baldin eta etxebizitzak, egoitzak, ikastetxeak, osasun establezimenduak, ostalaritza establezimenduak badira, bai eta industria, merkataritza edo zerbitzu jardueretarako erabiltzen diren edo erabil daitezkeen lokalak badira edo beste edozertarako erabiltzen direla jasota badago.
 - 4. Zerbitzuaren barruan sartzen dira, hondakin bilketaz gain, hondakinak tratatzeko eta ezabatzeko jarduerak, bai eta jarduera horien zaintza, itxi ondorengo zaborte-gien zaintza eta mantentze lanak eta komunikazio eta sentsibilizazio jarduerak ere.
 - 5. Sastarrak batzeko zerbitzua etetea lortuko da eraikina zaharberritzeko obra nagusia egiten den artean bizigarritasun baldintzarik ez dagoenean eta beti ere obra lizentzia eskatu eta ematen bada. Edozein kasutan udalak, egiaztatu ondoren, erabakiko du zerbitzua eten behar den ala ez.

3. artikulua.— Salbuespenak

Ez dute tasa ordaindu behar izango eraitsitako, udalak aurri egoera adierazita edo udalaren arabera bizitzeko baldintzarik betetzen ez dituzten finkek edo higiezinak.

4. artikulua.— Subjektu pasiboa

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34. artikuluko 1 eta 2 ataletan eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 24. artikuluko 1.b eta 2.a ataletan oinarrituta, honako hauek dira tasaren subjektu pasiboak zergadun gisa: aipatutako etxebizitzak, establezimenduak edo lokalak okupatu edo gozatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak, jaraunspen jaso gabeak, ondasun erkidegoak eta nortasun juridikorik ez duten eta zergagarri den unitate ekonomiko edo ondare bereizi bat osatzen duten gainerako erakundeak.
2. Zergadunaren ordezkioak izango dira higiezin horien jabeak eta, hala badagokio, kuotak onuradunei jasanarazi ahal izango dizkiete.

5. artikulua.— Erantzuleak

1. Subjektu pasiboaren zerga betebeharreí solidarioki aurre egingo die, zergei buruzko Foru Arauaren 41. artikuluko aipatzen dituen pertsona fisikoek eta juridikoek.
2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

**6. artikulua. — Zerga oinarria eta oinarri likidagarria**

Zerga oinarria zerbitzu zuzenaren edo zeharkakoaren kostu errealak edo aurreikus-
teko modukoak osatuko du, hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko eragiketak kon-
tuan hartuta, eragiketa horien zaintza, zabortegiak itxi osteko mantentzea eta zaintza,
kontzientziazio eta komunikazio kanpainak, eta ekoizlearen erantzukizun handituaren,
materialen salmentaren eta energiaren aplikazioaren ondoriozko sarrerak barne.

Oinarri likidagarria kalkulatzeko, aurreko artikuluan aurreikusitako murriztapenak
kenduko zaizkio zerga oinarriari.

7. artikulua. — Tasa kuota

1. Tokiko eskumeneko hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko nahitaezko zerbi-
tzu publikoa ematearen ondoriozko tasaren zerga kuota urtero ordaindu beharreko zen-
bateko bat izango da, oinarritzko kuota bat eta kuota aldakor bat batzetik aterako dena.

2. Oinarritzko kuota zenbateko finko baten eta honako xede parametro hauen ara-
berako zenbateko indibidualizatu baten emaitza izango da.

Etxebizitza	Zerbitzuak	Industria	Bestelako Epigrafeak
Biztanleen kopurua	Jarduera, azalera eta errentagarritasuna	—	—

3. Oinarritzko kuotari kuota aldakorraren zenbatekoa gehitzen zaio, erabiltzaile ba-
koitzak sortutako hondakin kantitatearen arabera proportzionalki kalkulatuta.

4. Ondoriozko tarifak, txosten tekniko ekonomikoan behar bezala justifikatuta, hu-
rrengo taulan adieraziko dira. Hiruhileko banakako kuota bat izango da tasa kuota, hi-
giezinaren erabileraren eta bertan egiten diren jardueren arabera, honako epigrafe hauei
jarraituta:

Epigrafea	Tasa
1. Epigrafea: Etxebizitzak	
1.1. Etxebizitzak	
— 0-2 biztanleria-mailako etxebizitzak	50,84
— 3-4 biztanleria-mailako etxebizitzak	53,34
— 5-6 biztanleria-mailako etxebizitzak	55,85
— 7 biztanletik gorako etxebizitzak	58,36
2. Epigrafea: Ostatuak	
2.1. Etxebizitza turistikoak	90,79
2.2. Bestelako ostatutak (agroturismo, hotel, apartamentu..)	90,79
3. Epigrafea: Ikastetxeak	
3.1. Ikastetxeak, Casa del Niño, lanbide heziketako zentroa eta institutua	107,98
3.2. Akademiak (edozein motatakoak) eta hartzaindegia	99,38
4. Epigrafea: Edertasun- jarduerak	
4.1. Edertze aretoak, gimnasioak, ile-apaindegiak, bizartegiak eta gorputzaren hobakun- tzara zuzendutako beste edozein jarduera	116,57
5. Epigrafea: Mediku kontsultak eta zentroak	
5.1. Mediku kontsultak	133,76
5.2. Sorostegiak, mediku zentroak, odontologia zentroak	133,76
5.3. Anbulatorioa eta arrantzaleen mutua	133,76



Epigrafea	Tasa
6. Epigrafea: Merkataritza orokorrean	
6.1. Fruta-dendak	131,61
6.2. 200 m ² -rainoko supermerkatuak	314,24
6.3-. 201 eta 400 m ² bitarteko supermerkatuak	417,37
6.4. 401 m ² -tik gorako supermerkatuak	606,45
6.5. Elikagaien arloko bestelakoak, harategiak, arrandegiak	131,61
6.6.1. 100 m ² -tik gorakoak	120,87
6.6.2. 100 m ² -tik beherakoak	95,09
6.. Botikak eta ortopediak	120,87
7. Epigrafea: Ikuskizun eta aisialdiko establezimenduak	
7.1. Zineak eta antzokiak	—
7.2. Diskotekak eta dantzalekuak	185,33
7.3. Jolastokiak	—
8. Epigrafea: Jatetxeak eta tabernak	
8.1. Jatetxeak	268,35
8.2. Kafetegiak, whiskitegiak, pubak, hamburgeseriak eta jatetxetzat hartu ezin daitezkeen jantokiak	159,54
8.3. Tabernak	159,54
8.4. Txokoak eta erretiratuen klubak	76,52
9. Epigrafea: Bulegoak	
9.1. Banketxeak	199,08
9.2. Beste bulego batzuk, autoeskolak, loteria eta gainerako joko saltokiak	85,63
9.3. Garraio publikoen (trena, autobusa) bulegoak	85,63
9.4. Atuneroak	199,08
10. Epigrafea: Beste jarduera batzuk	
10.0. 26 ibilgailu eta gehiagorentzat lekua daukaten garajeak	133,76
10.1. 4tik 26 ibilgailurako edukiera duten garajeak	107,98
10.2. 3 edo 4 ibilgailuren gordelekua edo lokalak 60m ² edo gehiago	79,62
10.3. 1 edo 2 ibilgailu bakarrik gordetzeko edukiera daukanean eta lokalak 60m ² baino gutxiago daukanean	58,99
10.4. Irabazteko asmo bako auzokide elkarten garajeak	58,99
10.5. Zentro ofizialak eta Kofradia	120,87
10.6. Itsasontzien lonjak	90,79
10.7. Materialak eta ekoizkinak biltzeko bakarrik diren industria eta merkataritza lokalen biltegiak	90,79
10.8. Lokal hutsak	11,54
10.9. Nekazarien sindikatua, garraio biltegiak, ardo eta edariak banatzeko biltegiak	—
10.10. Petroliotik eratorritakoen zerbitzuak	90,90
11. Epigrafea: Industriak, biltegiak eta tailerrak	
11.1. Herri barruko industriak eta tailerrak	164,38
11.2. Herri barruko jardueren biltegiak	90,79
11.4. Oinetako, altzari, tapizeria, iturgintza tailerrak	95,95
11.5.1. Industriak eta tailerrak	178,18



Epigrafea	Tasa
11.5.2. Biltegiak	95,95
11.6. Ibilgailuak erakusteko eta garbitzeko lokalak	90,79
11.7. Gasaren Matxitxakoko lur-planta	4.425,01
12. Epigrafea: Zehazki tarifatu ez direnak	
12.1. Zehazki tarifatu ez direnak	66,73
13. Epigrafea: Lokalak	
13.1. Hutsik ez dauden lokalak	56,48
13.2. Etxebizitzen eranskinak ez diren trastelekuak	8,65

5. Aipatutako Tarifen Eranskinean sartzen ez diren establezimenduek, duten antzekotasunagatik, nolabait egokiena den zerga ordaindu beharko dute, Ogasun Zinegotzigoaren ebazpen arrazoituaren bidez.

6. Katastroko erreferentzia batekin identifikatutako espazio batean Ordenantzaren tarifetan jasotako erabilera bat baino dagoenean, erabilera astunena hautatuko da.

7. Hobariak:

Urtebetez aplika daitekeen tarifa murriztua, Bermeoko industria-gunean ez dauden jarduera berriak irekitzeagatik. Jarduera irekitzearen aurretiazko komunikazioan eskatu beharko da murrizketa hau, eskari data horretatik aurrera aplikatzeko. Bestela, murrizketa eskaria egiten den egunetik hasita aplikatuko da murrizketa, atzera eraginik gabe, eta kontuan hartuta jarduera zabaldu zeneko data. Lehenengo urte honetan %50eko murrizketa aplikatuko da dagokion tarifa orokorraren gainean.

Udal administrazioak hobaria deklaratzeko badu, hala frogatzen duen agiria egingo du, eta eskaera-dataren hurrengo ekitaldian izango ditu ondorioak.

Subjektu pasiboek nahitaez eman behar dute hobari horren baldintzetan eta bete-beharretan gertatutako aldaketen berri; aldaketa horiek ondorioak sortuko dituzte gertatu eta hurrengo ekitalditik aurrera.

Administrazioak ofizios egiaztatu ahal izango du zerga hobari hau emateko beharrezko baldintzak betetzen direla, eta eskatu ahal izango du aurkezteko subjektu pasiboak hobarirako eskubidea duela frogatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak.

8. artikulua. — Epigrafeak aplikatzeko arauak

1. Establezimenduak zabaltzeko aurre-komunikazioan edo lizentzia eskarian adierazten den jarduera izango da kontuan epigrafea aplikatzeko, administrazioak egin ditzakeen egiaztapenen kalterik barik. Epigrafe hori berehala aplikatzea dakar, aurre-komunikazioaren edo lizentziaren egunari dagokion hiru hilekoan.

2. Hutsik dagoen lokaltzat hartuko da ondasunak edo materialak biltzen/ gordetzen ez den lokala eta jarduerarik egiten ez den lokala.

3. Jardueraren bat izan bada, jarduerari utzi zaiola edo lokala itxi dela frogatu beharko du interesdunak ekonomi jardueren gaineko zergaren eraginetarako baja aurkeztuta.

4. Trastelekuen 13.2 epigrafea aplikatzeko honako hau izango da kontuan:

4.1. Nahiz eta eskritura publikoan trastelekua etxebizitzatik bereizita dagoen higiezin bezala agertu, etxebizitza eta trastelekua eraikin bereko higiezinak izanda jabe bakarrarenak direnean biak eta beti ere trasteleku bati bakarrik dagokionean, trasteleku hura etxebizitzari erantsita dagoela ulertuko da eta ez agertuko abonatu moduan. Hau da, abonatu bakarra etxebizitza izango da.

4.2. Eraikineko etxebizitza baten jabe bera trasteleku bat baino gehiagoren jabea denean, etxebizitzari erantsita dagoena haietariko bat dela ulertuta, gainerako trasteleku bakoitzak abonatua izan beharko du eta 13.2 epigrafea aplikatuko zaio.



- 4.3. Eraikineko etxebizitza bakar baten jabea ez dena baina bertako trastelekuren baten jabea denean, horrelako trasteleku bakoitzak abonatuia izan beharko du eta 13.2 epigrafea aplikatuko zaio.
5. Higiezin batean jarduera bat baino gehiago garatzen bada edo erabilera bat baino gehiago badauka tasa zenbateko handiena daukan epigrafea aplikatuko da.
6. Ibilgailuen gordeleku edota garajeei dagozkien epigrafeetan jarritako ibilgailu kopurua lokalak daukan edukierari dagokio, ez zenbat ibilgailu sartzeko erabiltzen den.

9. artikulua. — Abonatuia

1. Tasa honen eraginetarako abonatuia deituko zaio eta epigrafeen araberrako kuota ordaindu beharko du udalerrian kokatuta egonda sastar-batze zerbitzua ematen zaion lokal- unitate bakoitzari, berdin izanda zerbitzua zein eratan ematen zaion.

Abonatuia abonatu- zenbakiarekin identifikatuko da. Behin higiezinari abonatu- zenbakia erantsita aldaezina izango da, egite ezargarriaren kokapenari betiko lotuta egongo da.

2. Eragin horietarako, higiezin moduan hartuko da:

- Eraikuntza edo industria pabiloia, unitate txikiagoetan zatituta ez dagoena eta guztia, titularitate bakarrekoa izanda, erabilera bakar baterako erabiltzen denean. Abonatu bakarria izango da kasu honetan.
- Legeak jabetza horizontalari buruz ezarritako erara berezitateko jabetza moduan hartzen den edo har litekeen etxebizitza edo lokal bakoitza, berari egotzitakoa eta guzti. Higiezin bakoitzak abonatuia izango du.
- Etxebizitza edo lokal bi edo gehiago gehituz lortzen den etxebizitza edo lokala, beti ere, elkarren ondoan egonez gero, barrutik bat eginda, eta titularitate bakarrarekin erabilera bakarrerako erabiltzen badira, abonatu bakarria ordainduko dute. Baldintza hauek egiaztatuta egin behar dira, eskubidean onar daitekeen eraren baten. Bestela lokal bakoitzarengatik abonatu bana ordaindu beharko da.
- Nahiz eta eskrituran edo katastroan higiezin bakar legez agertu, izatez hainbat erabilera dituelako edo jarduera/erabileraren hainbat titular onuradun daudelako, zatituta dagoela ulertuko da eta zati bakoitza abonatuia izango da.

10. artikulua. — Abonaduen kudeaketa

1. Abonatuiek derrigorrezko sastar-batze zerbitzuaren errolda osatuko dute. Horrela aspaldiko zerbitzu hartzaile diren higiezinak abonatu legez erregistratuta egongo dira.

2. Eraikin berrietako banakako higiezinei, ofizioz, abonatu alta emango zaie bizigarratasun lizentzia edo lehen erabilerarako lizentzia eskuratzen duten hiru hilabete bertan.

3. Abonatuia izan behar baina ez den higiezinaren jabeak alta eskatzeko bete beharra dauka.

4. Zerbitzuko abonatu bakoitzak datu hauek izango ditu:

- Abonatu zenbakia: aldaezina, beti bera.
- Abonatuaren identifikazioa: higiezinaren identifikazioa = egite ezargarriaren lekua: zuzena den heinean aldaezina eta oinarria katastroan daukana.
- Jabea = abonatuaren titularra: tasa ordaindu behar duena: momentuan momentukoa.
- Epigrafea: benetako erabilera/jardueraren araberrakoa: momentuan momentukoa
- Tasa ordaintzeko era: (eskuz edo banketxean helbideratuta): momentuan momentukoa.

5. Higiezin baten garatzen edo garatuko den jardueraren titularrak dituen betebeharren kalte barik, jabearen betebeharra da bere jabegoko higiezinan garatzen edo garatuko den jardueraren edo ematen zaion erabileraren berri udal administrazioari ematea, epigrafe egokia aplikatzeko.

**11. artikulua. — Tasaren sortzapena**

1. Tasa zerbitzua ematen den unetik sortzen da, etxebizitzak edo establezimenduak erabiltzen hasitako eguna edozein izanda ere.

2. Tasa ordaindu beharra sortuko da, zerbitzuko abonatu lez, egitate ezargarria eragin duen udal jarduera hasten denean eta berau hasi dela ulertuko da honako kasu hauetan:

- 2.1. Zerbitzua lehenengoz jartzen denean, lehenago halakorik ez zegoen tokian.
- 2.2. Bizigarritasunaren edo erabileraren lizentziak ematen diren momentuan, jarduera garatzen den edo etxebizitza erabiltzen den ala ez kontuan hartu barik.
- 2.3. Bizigarritasun edo erabileraren lizentzia eduki ez arren, higiezina bizitzeko edo jardueraren baterako erabiltzen denean.
- 2.4. Beste kasu guztietan, hiruhileko natural bakoitzaren lehenengo egunean.
- 2.5. Egiatzapen eta ikuskapen espedientearen ondoriozko kasuetan, bertan zehazten denean.

12. artikulua. — Helbideratze aginduen kudeaketa

1. Subjektu pasiboek tasa banketxeko helbideratzearen bidez ordaindu ahal izango dute, ordaindu behar duen pertsonaren titulartasun-kontu batean edo sinaduraren bidez helbideratzea baimendu duenaren kontuan. Eskaria udalak onartutako eredu ofizialean egin beharko da, dagokion banketxeko kontuaren agiria erantsita.

2. Helbideratze aginduak eskaria egiten den hiruhilekoan bertan izango ditu ondorioak, baldin eta errolda onartzeko data baino lehen aurkezten bada. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskariek hurrengo hiruhileko naturalean izango dituzte ondorioak erroldan.

13. artikulua. — Alta berrien kudeaketa

1. Etxebizitzaren sustatzaileek edo eraikitzaileek, kasuan kasuko eraikinaren lehen erabilerako lizentzia eman eta bi hilabeteko epean, eraikineko etxebizitzaren jabeen adierazpena aurkeztu beharko dute udal honetan, katastroko etxebizitzaren identifikazioekin eta jabetzaren banaketa horizontalaren ondoriozko dependentzien erabilera adierazita. Etxebizitzaren bizigarritasuna onartzeko datuak udalean aurretiaz aurkeztu badira, dependentzia guztiei alta emango zaie ofizioz.

2. Abonatuen altak bizigarritasun edo erabilera lizentziaren dataren arabera emango dira, dagokien epigrafea aplikatuta.

14. artikulua. — Titulartasun aldaketen kudeaketa

1. Tasa honen subjektu pasibo berriek titulartasuna aldatzeko eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dute, bi hilabeteko epean eskritura edo, hala badagokio, aldaketa formalizatzeako agiria egin eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoari kalterik egin gabe, pertsona edo erakunde eskualdatzaileak ere deklaratu ahal izango ditu titulartasun eskualdaketak.

3. Titular aldaketa eskaria egiten den hiruhilekoan bertan izango ditu ondorioak, baldin eta errolda onartzeko data baino lehen aurkezten bada. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskariek titularitate aldaketa egin eta hurrengo hiruhileko naturalean izango ditu ondorioak erroldan.

4. Tributu kudeaketa sailak agiri edo bestelako baliabideen bidez jabegoaren titularra aldatu dela jakinez gero, higiezinaren titularra aldatzeko eskaririk aurkeztu den egiaztatuko du. Eskaririk aurkeztu ez bada, ofizioz aldatzeko espedientea zabalduko du, zergei buruzko Foru Arauan eta indarrean dagoen araudian jasotakoari jarraituta, eta hala badagokio, titular berriei kitapenak igorriko zaizkie, eskualdaketa eskrituren datak eta preskripzioko datak kontuan hartuta.

**15. artikulua.— Epigrafea aldatzea**

1. Higiezinaren jarduera edo erabilera aldatzen bada, edo jarduera ixten bada, subjektu pasiboek epigrafea aldatzeko eskaria eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dute. Honi dagozkion frogabideak erantsi beharko zaizkio, eta jardueren kasuan, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren alta, aldaketa edo baja agiria.

2. Epigrafe aldaketak eskariaren hurrengo hiruhileko naturalean izango du eragina, edo eskariaren hiruhilekoan bertan, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren aldaketa edo ixte dataren arabera.

3. Agiri bidez aldaketa frogatzea ezinezkoa denean, udal administrazioak ikuskaketa egingo du garatzen den jarduera edo erabilera egiaztatzeko, eta horren arabera aplikatuko da dagokion epigrafea. Kasu honetan aldaketaren eragina beti izango da eskariaren hurrengo hiruhilekoan.

16. artikulua.— Egiaztapenak eta ikuskapenak

1. Ofiziozko egiaztapenak edo ikuskapenak Zergei buruzko Foru Arauan eta indarrean dagoen araudian jasotakoari jarraituta egingo dira. Administrazioak egiaztapen mugatuaren prozeduran, zehazki, entzunaldi izapidea eta berariazko ebazpena egin beharko ditu.

2. Egiaztapenen ondorioz abonatuaren altak, epigrafe aldaketak eta titularren aldaketak ofizioz egingo dira. Hala badagokie, subjektu pasiboek kitapenak, kitapen osagarriak edo itzulketak egingo zaizkie, beti ere preskripzioko epea kontuan hartuta. Jarduera edo erabilera zehaztu ezina denean, egiaztapen espedientea hasten den hiruhilekoan edukiko du eragina epigrafe aldaketak.

17. artikulua.— Abonatuaren baja

Zerbitzua nahitaezkoa dela kontuan izanda, abonatuaren baja 3. artikuluan aurreikusitako kasuetan baino ezin izango da lortu. Aurriaren adierazpen dataren, eraisteko lizentziaren dataren edo bizitzeko baldintzarik betetzen ez duenaren adierazpen dataren hurrengo hiruhilekoan edukiko du eragina abonatu baxak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen aldaketa Udaltzatzen Toki Erakundeak 2025eko urriaren 17ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartu zen, 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta hala jarraituko du hura aldatu edo indargabetu arte.